

Adimen-urritasuna duten pertsonen bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetzeko Markina-Xemeingo elkarteak orain gutxi estreinatu du bere webgunea. Interneteko amaraunean, beraz, euren zeregin eta helburuen berri izango dute [www.izarbidean.org](http://www.izarbidean.org) helbidera sartzen den edonork. 2003 urtean jaiotako Izarbidean elkartearen oihartzuna sarean da, argi eta garbi. **TESTUA Imanol Fradua ARGAZKIAK Izarbidean**

# Izarbidean, ziberespazioan

# A

zken kurtsuari amaiera eman zioten orain zenbait aste, baina Izarbidean Elkarteak arduradunek ez dute deskantsurik izan. Izan ere, Lea Artibain adimen-urritasuna duten pertsonen alde lan egiten duen irabazi-asmorik gabeko erakundeak lan mordoa egin behar izan du azken asteotan. Egiten duten guztia ziberespazioan jarri dute ikusgai. "ahalik eta leku eta jende gehienarengana" euren oihartzuna zabaltzeko asmoarekin. Orain dila bi aste aurreratu zuten Markina-Xemeingo Uha-gon Kulturgunean [www.izarbidean.org](http://www.izarbidean.org) proiektua, pertsona horien gizarteratzean eragiteko beste tresna bat izatea nahi dutelarik.

"Ordu nahikoa sartu" dutela aitortu dute, batez ere elkartearen aktiboki parte hartzen duen Edu Roblesek. Dena den, "emaitzarekin pozik" agertu ziren 2003 urtean jaio zen Izarbidean Elkarteak arduradunak. Lokala ere badute Markina-Xemein-en, Topalekua deritzona. Baina euren txokoko paretetatik haratago joatea izan dute betidanik helburu. Eta interneteko sarea toki ezin aproposagoa da horretarako. "Interesgarria iruditu zitzaigun eta horren aldeko apostua egin genuen". Eta lortutako emaitza ona izan da.

Eta "kalera irtetzeko" gogo horren adibide dira azken ikasturtean irailetik ekainera arteko antolatutako dituzten hainbat irteera eta egitasmo. "Aurtengo ikasturtean Lea Artibaiko herrietatik etorritako adin desberdinetako 21 pertsonak parte hartu du". Ekinoterapia, irteerak, arte-eskola edota sukaldaritzako ikastaroak egin dituzte, besteak beste, euren aisialdian. Baina herri osoarentzako ekimenak ere egiten dituzte, "Markina-Xemeingo beste elkarteekin lankidetzan".



Markina-Xemeingo elkarteak, Bilbora egindako irteeretako batean. FOTO: IZARBIDEAN



Ituarte eta Egurrola, webgunearen aurkezpenean. FOTO: IFRADUA

## EOSren emanaldia

Izarbidean Elkarteak badu prest urrirako ekitaldi nabarmen bat, sona handia lortzea helburu duena. Lazkoan ere halako zerbait egin zuten, zesta punta festibal handi bat antolatzerakoan, momentuko puntista onenekin. "Oso arrakatsua izan zen eta jende ugari bildu zen Uni frontoian; eta aurtengoan formula errepikatu nahi izan dugu", zehaztu zuten elkarteak arduradunek. Eta formula hori musika izango da. Izan ere, bere izena Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin lotuko du, Xemeingo eleizan ospatuko den musika emanaldi berezi baten. "Lankidetzan jardun gara eurekin emanaldia antolatzerako orduan, eta Markina-Xemeinera kalitatezko kontzertu bat bat ekartzeko izan dugu helburu nagusi", adierazi dute, "markinarrei eskaintzeko". Proposamena bete ere, datorren urriaren 28rako iragarri dutelako emanaldia. "Pozez" hartu dute elkarteak arduradunek albista, "kontzertuaren prestaketa orain hile batzuk hasi zelako. Udalaren oneritzia ere lortu dugu", gaineratu zuten. >I.FRADUA

"Kalean presentzia izaten saiatzen gara, gizarteratzearen aldekoa". Adimen-urritasuna duten pertsonen gizarte honetan duten tokia aldarrikatzea eta, batez ere, "herritarren aurrean agertzea" ezinbestekotzat jotzen baitute. Horretarako zenbait proiektu darabilte esku artean. Horietatik bat, beste guztien gainetik: Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Xemeingo elizan datorren urriaren 28an eskainiko duen emanaldi berezia.

**WEBGUNEA** Baina etorkizuneko egitasmoak heldu aurretik euren proiektua ziberespazioan ere bada ikusgai [www.izarbidean.org](http://www.izarbidean.org) helbidean. "Aurrera pausoa eman dugu atariarekin, baina orain berau elikatzen ibili beharko gara". Ziur oihartzuna ozen eta garbi entzungo dela sarean.

Webgunean ematen da adimen-urritasuna duten pertsonen gizarteratzea bultzatzeko elkarteak dituen programa desberdinen berri. Infor-

mazioz eta argazkiz josiak, "jendearengana heltzea" dute helburu nagusi. "Gaurtik aurrera gure informazioa eskuragarriago dago, eta bide batez, edonork kontsulta dezake, dagoen tokian dagoela. Guretzako pauso handia da", azaldu zuten Luis Egurrola eta Marieli Ituarte, elkarteak arduradunetako bik.

Atalka sailkatuta, Izarbidean elkartearen zer lan egiten den islatzeko baliagarria da, "modu erraz batean, gaur eguneko beharrei erantzunez". Berriak izeneko atala ere badu atariak, "egiten ditugun jarduerak zabaldu ahal izateko". Eta baita Zuk zer egin dezakezu atala ere, non boluntario edo bazkide egiteko aukera ematen den. Arrazoia argia da: Izarbidean lana ez litzateke posible izango boluntariorik gabe, "eta beti gabiltza jende faltan. Beraz, animatzen diren horiek badakite nora jo dezaket", zehaztu zuen Egurrolak. "Boluntarioek ematen ditelako hauspoa gure elkarteari".